



# INDARBERRITZEN

**EBAZPENAK**



**14. KONGRESUA**

**2017 06 15-16**

[www.ela.eus/kongresua](http://www.ela.eus/kongresua)



# SINDIKALISMO EZ PATRIARKALAREN ALDE INDARKERIA SEXISTARIK EZ

ELAK konpromisoa hartu zuen indarkeria sexistaren auzia sindikatu barnean agerrarazteko eta agenda konfederalean sartu zuen azaroaren 25a, indarkeria sexistaren aurkako nazioarteko eguna. Honekin batera, sindikatuak bere borondate irmoa adierazi zuen gune eta egitura feministetan parte hartzeko: Hego Euskal Herriko hiriburuetan dauden Martxoaren 8ko eta Azaroaren 25eko koordinakundeak, edota Emakumeen Mundu Martxa.

Ordutik hona emakumeek pairatzen duten bortizkeria sistemiko horren esanahia berformulatu eta hedatzera jo dugu; oraindik ere hainbat izen ematen zaizkio: genero indarkeria, indarkeria sexista, bortizkeria matxista, emakumeenganako bortizkeria patriarkala...

Bortizkeria hau emakumeei eragiten zaie, emakume izate hutsagatik, gizon eta emakumeen arteko botere-harreman desberdinen baitan. Arlo pribatuan gerta daiteke (etxean, bikotean...), baina baita publikoan ere (bortizkeria instituzionala, judiziala, estatu-indarkeria...). Nolanahi ere, bikotearen baitan eragindako bortizkeria baino zabalagoa da. Hain zuzen, ez gatoz bat genero-bortizkeriaren aurkako lege organikoarekin (LO 1/2004), honen eremua mugatzen baita gizon eta emakume baten artean harremanen bat izan den edo dagoen kasuetara.

Gure herriarentzako bake bila gabiltzan garaiotan, edota instituzioek eta patronalak hain maite duten "bake soziala" aipatzen delarik, bada ezinbestekoa den beste bake bat ere, baina hau ez da aipatzen, ez aintzat hartzen. Zein da bake hori? Emakumeen bizitzari eta gorputzari zor zaion bakea, zeina derrigorrezkoa den edozein herriren garapen ekonomiko, sozial, politiko eta demokratikoa iristeko. Izan ere, munduko alde guztietan gertatzen da bortizkeria matxista. Feminizidioa mundu guztian da ezaguna, termino hau hegoaldearekin edota Mexikoko Ciudad Juarezekin lotzen dugun arren.

Arazoaren kontzientzia benetan hartu nahi badugu eta auzi honekiko konpromiso bat hartzekoak bagara, indarkeria era hau sortzen duten zergati, ondorio eta ardurak sakonago aztertu behar ditugu.

## Zergatiak

Bortizkeria matxistaren zergati edo jatorri estrukturala sistema heteropatriarkal delakoan datza, zeinak gizonezko generoa emakumezkoaren gainetik kokatzen eta hierarkizatzen duen, eta heterosexualitatea lehenesten duen, beste hautu sexualen gainetik. Honek ezartzen du indarkeria sexistaren oinarria, zeina sistema horrek sortu dituen menpekotasun eta botere harremanak iraunarazteko baliatzen den.

Bortizkeria litzateke emakumea menpean edukitzeko eta betiko genero-harreman eta -identitateak mantentzeko sistema horren adierazpenik agerikoena eta latzena. Beraz, bortizkeria estrukturalaz ari gara, gizartean duen eragina partikularizatzeko eta erlatibizatzeko joera dagoen arren.

Indarkeria hau ez da bakarra, ez eta beti itxura berekoa ere; gure jendartea egituratzen duen bortizkeria multzo bat da, gauzen ordena naturala balitz bezala. Horrela gizon eta emakumeen arteko desberdintasun estrukturalak eta ordena heteropatriarkalak indarkeria sinboliko bat sortzen dute; itxuraz ez da oldartzen, ez du hiltzen, baina bortizkeria sistemiko horrentzako ezinbesteko ongarri bilakatzen da.

## Ondorioak

Ondorioak tragikoak dira. Hego Euskal Herrian 2010 eta 2015 urteen artean 33 emakume hil zituzten. Sexu erasoak egunero gertatzen dira gurean ere, nahiz eta ezinezkoa den jakitea zenbat diren, gai honetan ez baitago erregistro ofizialik.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, emakumeenganako bortizkeria lehentasunezko osasun arazoa da, eta hiltzen dituzten emakumeen %70 beren bikotekideen biktima dira. Hau litzateke 16 eta 44 urte bitarteko emakumeen heriotza edo elbarritasuna eragiten duen zergati nagusia, eta kantzerrak edota trafikoko istripuek baino hildako eta osasun arazo fisiko eta psikiko gehiago eragiten du.

Gainera, indarkeria sexistak ondorio ekonomiko, politiko eta sozial nabarmenak ditu, emakumeen laneratzea eta parte hartze sozial eta politikoa eragozten baitu.

### **Erantzunkizuna**

Arazo estruktural honetan banako gizonezkoek badute, noski, erantzukizuna, baina begibistakoa da ardura kolektiboak ere badirela. Honek zuzenean interpelatzen ditu erakunde politikoak, sistema judizial eta poliziala... Inpunitatea kasu askotan nagusi da, baita aitortza eta memoriaren gabezia ere. Bestalde, ezin dugu ahaztu geuk ere, gizarte-mugimenduok eta sindikatuok, zailtasunak izan ohi ditugula auzi honi gure agendan lehentasuna emateko.

Arazo hau lan munduan ere gertatzen da. Hor dago prekaritatearen inguruko eztabaida, bortizkeriatzat har daitekeen ala ez... honi buruzko iritzi desberdinak daude (prekaritatea per se bortizkeria gisa edota bortizkeriaren zergati gisa); gauza bat argi dago: emakumeek pairatzen duten prekaritateak eta pobrezia beren menpekotasun ekonomiko eta soziala areagotzen du, eta horrekin batera indarkeria jasateko aukerak.

Halaber, aipatu beharrekoa da lan eremuan gertatzen den indarkeria sexista mota espezifiko bat: sexu-jazarpena, edo sexuagatik gertatzen dena. Honelako jokabideak sortzen dira botere-arazo bat dagoenean eragiten duen eta pairatzen duenaren artean. Egoera hauek sufritzen dituenak ez ditu onartzen, eta haien xedea da biktima kikitzea, bere duintasunari erasotzea. Zailtasuna da norberak erabaki behar duela zein jokabide den onargarria. Dena dela, fokua emaitzan jarri behar da, jokabidearen intentzioa gorabehera, eta estatistikek argi erakusten dute jazarpen sexuala pairatzeko aukera handiagoa dela jazarriaren egoera ahulagoa denean edota menpekotasun handiagoa duenean.

Beraz, arazo sozial larria dugu hau. ELAk orain artekoa baino gehiago egin nahi du bortizkeria matxistaren agerpen desberdinen aurkako borrokan, eta horregatik honako konpromisoak hartu ditu bere gain:

- Sindikatuak hasi duen genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketa prozesuaren baitan kultura ez matxista landuko dugu, honako urratsekin: emakumeak ahalduntzeko prozesuak, gizontasun berrien sustapena edota genero-rolen dekonstrukzioari buruzko sentsibilizazioa.
- Prozedura eta estrategiak sortuko ditugu sexu-jazarpen eta sexuagatik jazarpen egoerak identifikatu eta horiei erantzuteko, hala sindikatu barnean nola lantokietan.
- Jarraipena emango diogu emakumeek pairatzen duten prekaritate laboral eta sozialaren aurkako borrokari, haien bizi-baldintzak duintzeko asmoz. Horretarako, sektore feminizatuak antolatzea gure estrategia sindikalean funtsezkoa izango da etorkizunean ere. Era berean, zaintzarako kalitatezko zerbitzu publikoen beharra aldarrikatzen jarraituko dugu, zaintza lanen erantzukidetasunean aurrera egiteko.
- Eraso edo hilketa matxistak salatu eta sozializatzeko gure konpromiso publikoa berresten dugu, mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan aktiboki parte hartuko dugularik, mugimendu berarekin sarean lan eginez.

## EUSKARAZ LAN EGITEKO ESKUBIDEAREN ALDE ASIMILAZIO KULTURALAREN KONTRA

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza eta gure nazio izaeraren ezinbesteko osagaia da. Herri txiki bateko hizkuntza gutxitua da gurea, munduan dauden beste hainbat hizkuntza bezala. Izan ere, kapitalismo neoliberalak homogeneizazio kulturala eragiten du eta ekonomikoki errentagarriak ez diren jarduerak, kultur-ekintzak eta hizkuntzak desargertarazi egiten ditu. Munduan zehar hizkuntzak desagertzen ari dira indartsuagoak diren hizkuntzen mesedetan, eremu bakoitzean botereak legitimatzen dituen hizkuntza nagusien mesedetan, alegia.

Azken urteetan euskararen normalizazioan urratsak eman diren arren, ezin ukatu asimilazio kultural hau ematen ari denik gurean ere. Euskararen ordezkapen prozesua etengabea da espainola eta frantsesaren alde, lurralde eta eremu guztietan eta, ondorioz, gure herrian ez da posible euskaraz bizi eta lan egitea. Minorizazio egoera hau botere harreman desorekatuen ondorioa da.

Euskal langileok euskaraz lan egiteko eskubidea dugu, norbere hautazko hizkuntzan bizitzea eta lan egitea oinarrizko eskubidea baita. Erdal hiztunek bere hizkuntzan bizi eta lan egiteko eskubidea onartzen eta bermatzen dugu (erdarkak ezagutzen ditugun neurrian) eta gauza bera eskatzen dugu euskaldunontzat.

Hizkuntzei buruzko afera norbanako eremuan kokatzen dute euskararen asimilazio eta minorizazio egoera ontzat eman nahi dutenek. ELAk, bestelako desberdintasun sozialak bezala, euskaldunon hizkuntza eskubideak ahalegin kolektiboen baitan eta eskubide guztiak errespetatuko dituen gizarte baten testuinguruan kokatu nahi ditu, hizkuntza eskubideen aldeko borroka berdintasun eta demokraziaren aldeko borroka delako, gure ustez.

Hizkuntza eskubideak oinarrizko giza eskubideak dira, genero edota arraza guztien berdintasun eskubideak bezala. Hizkuntza eskubideen aldeko borroka, zentzu horretan, justizia sozialaren aldeko borroka da, klase borrokaren beste eremu bat, guretzat. Botere harremanak iraultzeko jaio zen ELA, ahulen aldeko borroka da gurea, langileen bizi baldintzak hobetu eta oinarrizko eskubideak bermatzea dagokigu, hizkuntza eskubideak horien parte direlarik. Horrez gain, kapitalismo neoliberal honi imajinario alternatiboa eraikitzerakoan, hizkuntza minorizatu baten aldeko borroka imajinario alternatibo horrek behar dituen balio kontrakulturalak indartzen ditu, homogeneizazioak dakarren gizarte grisari aniztasunaren kolorea ematen baitio.

Berdintasunerako bidean euskaldunok geure eskubideez kontzientzia hartzea eta ahalduntzea premiazkoa da. Hizkuntza eskubideen subjektu garena jabetu behar dugu, eta norbanako zein hizkuntza komunitate bezala kontzientzia hartu. Izan ere, ordezkapen planifikatuaren eragina ez da makala eta euskaldun asko ez gara jasandako akulturalizazio eta asimilazioaz jabetu ere egiten.

Berdintasuna aldarrikatzeak betebeharrak ere sortzen ditu ezinbestean, benetako elebitasunik gabe ez baitago berdintasunik. Administrazioei dagokie lehen mailan berdintasun eskubidea gauzatzeko neurriak hartzea eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak jartzea. Eskubideak bermatzeko erabaki politikoak, arauak eta neurri eraginkorrak ezarri behar dira, hizkuntza eskubideak norbanako ardura gisa utzi beharrean.

Guzti honetarako hizkuntza politika berri bat behar dugu, tokian-tokiko errealitate soziolinguistikotik abiatuko dena eta ahalik eta adostasun zabalenetik eraikia, baina guztion hizkuntza eskubideen errespetua ardatz izango duena, inori beto eskubiderik onartu gabe.

Eremu sozio-ekonomikoa eta lan mundua giltzarri dira euskararen normalizaziorako. Orain arte lan munduan langileen euskalduntze prozesuak hauen ardurapean bultzatu dira neurri handi batean. Normalizazioaz ari garenean, aldiz, lantokietan euskararen erabilera bermatzeko baldintza egokiak sortzeaz ari gara, euskara lan prozesuetan sartzeaz eta funtzionamendua bera euskalduntzeaz. Bistakoa denez, oso gutxi dira euskara era honetara aurreikusten duten lan zentroak.

Administrazio publikoetan ere egoera ez da ona. Oraindik orain ez da bermatzen herritarrok zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko dugun eskubidea, ez eta sektore horietako langileena euskaraz lan egiteko. Administrazioek pairatzen duten gehiegizko behin-behinekotasunak, gainera, egoera are gehiago zaildu du eta euskararen aurkako iritzia zabaltzeko giroa sortu du.

Guzti honengatik, lan mundua euskalduntzeko eta langileen hizkuntza eskubideak bermatzeko planifikazioa, baliabideak eta neurri eraginkorren beharra azpimarratzen dugu.

Langileon eta gizartearen ahalegin kolektiboa eta antolatua ezinbestekoak izango dira euskararen alde ere. ELAk ez dauka bere gain euskararen berreskurapenaren ardura, baina bai erakundearen baitan eta bere eraginpean dauden eremuetan euskararen erabilera normalizatzearena. Langileon hizkuntza eskubideen aldeko borroka gurea da neurri handi batean.

Minorizatua den hizkuntza baten kideok izokinak bezala ari gara, korrontearen kontra. Euskalduntzeak korrontearen kontra ari diren bestelako izokinekin (feminismoarekin, ekologismoarekin, LGTB elkarteekin, justizia sozialaren aldekoekin, sindikalismoarekin...) elkartasuna zabaltzea ere badakar, minorizazio sentimendu hori partekatzen den neurrian. Hori da ELAren jardura eremua, korrontearen kontrako erakundea baikara.

Aurreko guztia kontutan hartuta, gai honetan dugun erantzukizuna geurea egiten dugu Kongresu honetan eta hurrengo urteetarako ondorengo konpromisoak hartzen ditugu:

Sindikatu barruan,

- Sindikatuaren jardunean euskararen normalizazioa ardatz garrantzitsu bat izan behar da. Gure diskurtsoan euskararen minorizazioari toki handiagoa egingo diogu, egiturazko arazo politiko bezala kokatuz.
- Barne normalizazioan aurrera egiteko urrats kualitatiboak emango ditugu. Ez da nahikoa euskararen aldeko neurri zehatz edo isolatuekin. Sindikatuaren plangintza estrategikoan eta lan prozesuetan euskararen normalizazioa txertatuko dugu, esparru eta egitura guztietan helburuak ezarriz eta jarraipena eginez.
- Ahalegin berezia egingo dugu sindikatu barruan sortzen ditugun lan material eta euskarriak euskaraz sortzeko.

Lan harremanei dagokionez,

- Lan munduan langileek euskaraz lan egiteko duten eskubidea defendatzen eragile aktiboak izango gara. Afiliatu eta ordezkari sindikalengandik hasita, sentsibilizazio eta motibazio lana egingo dugu.
- Euskara planak eta neurriak bultzatuko ditugu lantokietan, sektore pribatu zein publikoan.
- Euskararen normalizazioaren alde negoziazio kolektiboa eta ekintza sindikala indartuko ditugu, horretarako eduki eta neurri zehatzak aldarrikatuz.

# ALTERNATIBA SOZIAL ETA EKOLOGIKOETAN PARTE HARTZEKO KONPROMISOA HARTZEN DUGU

ELAren 14. Kongresuak bere egiten du “Sistema aldatu, ez klima” leloa. Halaber, hitz ematen du erabakitasunez erantzungo diola produkzio, banaketa eta kontsumo eredu eraldatzeko erronkari, betiere logika sozial eta ekologikotik abiatuta. Gure ikusmoldeak eredu sozioekonomikoa osorik ulertzen du: kontu orokorrak (esaterako, energia politika publikoak), baina baita egunero hartzen ditugun erabaki txikiak ere.

Eredu sozioekonomiko alternatibo honetan sakontzea beharrezkoa da, areago, ezinbestekoa, pairatzen dugun krisi sistemikoa dela eta. Eraldatze horrek esan nahi du, halabeharrez, politika publikoak goitik behera aldatu behar direla, lehentasuna eman diezaioten bizitza eta Lurra jasangarriak izateari, eta ez enpresen eta kapitalaren interesei. Gainera, funtsezkoa da benetako alternatiba sozioekonomikoak sortu eta eraikitzea, eta eredu aldaketa honetan partaide diren eragileekin aliantzak sustatzea.

Norbanakoek kontzientzia hartzea oinarritzkoa da, batetik politikak aldatzea galdegin dezaten, eta bestetik, kapitalismoak bereganatu dituen gure bizitzako hainbat arlo berreskuratzeko: oligopolio elektrikoak, banka espekulatiboa, etab. Horrela berriro gure buruen jabe izatea lortuko dugu, berreskuratu egingo dugu geure erabakitzeko eskubidea, kontsumitzeko moduaren bitartez. Helburua ekonomia sozial eta ekologikorantz jotzea da: gutxiengoaren aberastasuna handitu ordez gehiengoaren beharrianak asetzea, alegia.

ELAren 14. Kongresuak ohartarazi nahi du gure herrian hainbat esperientzia hasi dela eratzen. Esaterako, Goiener edo I-Ener, energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak; beraien xedea, burujabetza energetikoa berreskuratu eta oligopolio elektrikoari aurre egitea. Beste adibide bat Fiare dugu, filosofia etikoa duen bankua; hau bultzatu zuen taldeak herritar aktiboek mugimendu bat sortu zuen eta horretarako beharrezkoak ziren aliantzak osatu zituen. Euskoa, berriz, Iparraldeko tokiko dirua, Europa mailan hirugarrena da jada jarduera-bolumenari dagokionez. Elikadura burujabetzaren inguruan ere aipagarriak dira kontsumo taldeak, zeintzuk harremanetan jartzen dituzten ekoizle agroekologikoak produktu horiek eskuratzen dituzten kontsumitzaileekin.

Ekonomia Sozial eta Solidarioko esperientzia hauek eta beste batzuk ezagutaraztea garrantzi handiko egitate politikoa dugu. Sistemak sinestarazi nahi digu alternatibarik ez dagoela; izatekotan, halakoak utopia besterik ez direla. Haatik, sistemak ezkutatu egiten du emergentzia sozial eta larrialdi ekologiko egoera bizi dugula, eta beronen zergatia kapitalismoa bera dela, etekin eta metatze pribatua besterik ez baitu bilatzen, Lurraren mugak ahazten dituen etengabeko eta amairik gabeko hazkunde medio. Horregatik, alternatibak saiatzea ez da inola ere utopia; aitzitik, har dezakegun jarrerarik praktikoek eta arduratsuenak da.

Sindikatu garen aldetik gure erronka da aldaketarako botere soziala eraikitzea. Jendea jakinaren gainean jarri behar dugu badirela alternatibak, eta hauek ikusarazi behar ditugu; aliantzak eratu eta konfiantza sortu; gure lanaren zati bat da jendea bultzatzea honelako proiektuetan parte har dezan. 2015eko urriaren 24an Bilbon izan zen Alternatiben Herria, zeina Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak sustatu zuen, mugarriz izan zen. Ekitaldi haretan milaka lagunek, baita ELAko kide ugari ere, eredu aldaketaren balioak aintzat hartzen duten hainbat proposamenen berri izan zuten. Alternatiben Herriaren inguruko prozesuan parte hartzeko plazaratu genuen deialdian esan genuen: esperientzia hauek guztiok Euskal Herri justuago, solidarioago eta desiragarriago eraikitzeko aukera ematen digute.

ELAk arlo honetan organizazio aktiboa izan nahi du. Horretarako erabaki batzuk hartu ditu: Argindarra Goienerrekin kontratatu du, eta Fiareko bazkide bihurtu da; baina asmoa da askoz aurrerago joatea. Nahi dugu gure militanteek eraldatze sozial eta ekologikoaren esperientzia horietan parte har dezaten. Horregatik, 14. Kongresuak honakoa erabaki du:

- Gure militanteei eta langile-klase guztiari dei egitea eraldatze sozial eta ekologikoan aktibo izan daitezen.
- Kanpainak antolatzea gure militanteek urratsak egin ditzaten horrelako proiektuetan sartzeko: Goiener, Fiare, tokiko monetak, kontsumo taldeak, etab.

- Eskubide Sozialen Kartak norabide horretan egiten duen lanean inplikatu, hala kanpaina konkretuetan, nola beste prozesu batzutan, esaterako 2018an Iruñean izango den Alternatiben Herrian.



# GIZARTE-PRESTAZIO SISTEMA UNIBERTSALAREN ALDE: ESKUBIDE SOZIALEN ALDE, KRIMINALIZAZIO ETA XENOFIARI AURRE EGIN

Gizarte-prestazio sistema egoki bat funtsezkoa da kohesio soziala izateko. Prestazio sistema hau izango litzateke gizarteko sektorerik ahulenekiko konpromiso kolektiboaren zutabeetako bat, haiek gero eta zabalagoak direlarik.

ELAk aldarrikatu izan du Hego Euskal Herriko biztanle guztiei zor zaiela bizimodu duina izateko aukera, eta horretarako mobilizatu da. Haatik, ez EAeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DSBE), ez eta Nafarroako Errenta Bermatuak (EB) ere, ez dute funtzio hori behar den moduan betetzen. Behar egoeran dagoen jendearen %30 DSBEaren babes sistematik kanpo geratzen da. Nafarroako Gobernuak duela gutxi adierazi du pobrezia larria gero eta ugariagoa dela, ekonomiak hobera egin duen arren. Bestalde, nabarmendu beharra dago behartsuen artean soldata kaskarrak dituzten pertsonen portzentajea gero eta handiagoa dela; honek islatzen du pairatzen duten lan miseria. Diru-sarrera bermatuak handiagoak balira lan-baldintzak hobetuko lirateke.

Nafarroako Gobernuak, bera babesten duten lau alderdien botoarekin (Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra), erabaki zuen EBaren erreformak zenbait hobekuntza ekarri zuen (esaterako, 65 urtetik gorakoak sartzea), baina aldiz bakarrik bizi direnen errenta bermatua urritu egin zuen, eta zenbateko honek Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS) zuen lotura hautsi zuen. Erreformaren ondorioz, egungo EBaren zenbatekoa txikiagoa da, kasu gehienetan, aurreko taulak LAGSaren arabera aplikatzen jarraitu izan balira.

Duela egun gutxi, gure kongresuaren atarian, Eusko Jaurlaritzak DSBEaren beste erreforma bat iragarri du. Gogoratu beharra dago EAEn indarrean dagoen zenbatekoa 2008ko legean ezarritakoa aplikatuz gero baino %14 txikiagoa dela (murrizketa hau aurrekontu-legean ezartzen da urtero; esaterako, 2017rako EAJK, PSEk eta PPK bozkatu dute). Eusko Jaurlaritzaren proposamenarekin murrizketak areagotzen dira, eta gizarte-prestazioak jasotzen dituztenak kriminalizatzeko kanpaina hauspotu.

ELAk salaketa gordina egin behar du: DSBEa jaso ahal izateko baldintzak gogortzeko erabakia ustezko iruzurrarekin justifikatu nahi dute (haatik, Jaurlaritzaren txostenak berak aitortzen du iruzurra ia hutsala dela). Aitzitik, guztiz kontrakoa da botere politikoak enpresa- eta kapital-errenten iruzur fiskalarekin agertzen duen permisibitatea; Hego Euskal Herrian urtero 4.000 milioi euro izan litezke.

Kolektiborik ahulena kriminalizatzearen poderioz, hedabide nagusiek egiten duten moduan, sentipen xenofoboa hedatu egiten da, eta ELAren Kongresuak horri aurre egin nahi dio. Kezkatzekoa da gizarte-prestazioei buruz Jaurlaritzak egin duen inkestan biztanleen %40tik gora ados ez egotea honako esaldiarekin: "Pertsona guztiek, bertoko zein immigranteek, DSBEa jasotzeko aukera izan beharko lukete, behar izanez gero".

Immigranteen eskubideak mugatzeko sentipen hau langile-klasearen zati batean ere hedatuta dago, Europako beste leku batzutan bezalaxe, non eskuin muturreko posizioak klaserik xeheenetan oihartzuna izaten ari diren. Hau dena estrategia baten ondorio da, klase horretako kolektiboak beren artean aurrez-aurre jartzea xede duen estrategia: langabeak enplegua dutenen aurka; aldi baterako enplegua dutenak lanpostu finkoa dutenen aurka; lanaldi partziala dutenak lanaldi osoa dutenen aurka; arlo publikoan dihardutenak enpresa pribatuetan lan egiten dutenen aurka; "paperak" dituzten immigranteak "paperik ez" dutenen aurka; immigranteak bertan jaiotakoena kontra... Estrategia honek murrizketa sozial gehiago justifikatzearekin batera beste bi helburu ditu: batetik, doikuntza neurriak erabaki eta kutxa publikoak arpilatu dituztenen ardura zuritzea eta bestetik, saihestea eztabaida polarizatzea, desberdintasun sozialak izugarri areagotu baitira.

ELAk ez du onartzen zatiketa bilatzen duen estrategia hau, eta eskubide guztiak aldarrikatzen ditu Euskal Herrian bizi diren pertsona guztientzat.

Ebazpen honen bidez XIV Kongresuak honako konpromisoak hartzen ditu:

- Jarraitu egingo du aldarrikatzen behar egoeran dauden guztientzat estaldura eskainiko duen gizarte-prestazio sistema bat; sistema horrek emandako laguntzak ezin dute pobrezia-atalasearen azpitik egon.



## INDARBERRITZEN

- Eskari hauen aldeko mobilizazio soziala areagotu, beste erakunde sindikal eta sozialekin batera Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan egiten ari garen lanaren bitartez.
- Eusko Jaurlaritzak plazaratu duen DSBEaren erreforma Legebiltzarrean lantzen hasiko denez, Bilbon apirilaren 1ean egin genuen mobilizazioari jarraipena eman behar diogu. Halaber, arazo honek Nafarroan ere dagokion oihartzuna izan dezan lortu behar dugu.
- Salatu beharrekoa da biztanleria pobretu eta lan-prekarietatea hedatzen jarraitu nahi dutenen ardura politikoa; horretarako ezinbestekoa zaie gizarte-prestazioen maila ahalik apalena izatea.
- Hedabide nagusiek daramatzaten kriminalizazio eta xenofobia zabaltzeko kanpainak salatu behar ditugu; kanpaina horien xedea da prestazioen murrizketak justifikatzea.
- Iraupen luzeko kanpaina bat egin behar da langileen artean, eskubide guztiak pertsona guztientzat aldarrikatzeko, horrela gizarte justuago eta solidarioagoa lortze aldera, zeinetan sentipen eta jokabide xenofoboei aurre egiten zaien.

# HERRIEN ASKATASUNAREN ALDE. ERREPUBLIKA KATALANAREN ALDE

Kataluniak aspaldidanik proposatu izan ditu formula desberdinak espainiar Estatuan txertatzeko modu berri baten bila:

2005ean, Aznarren bi legealdien ondoren, estatutu berri bat proposatu zuen. Rodriguez Zapaterok eta Artur Masek gero hitzartu zuten bere edukia mugatzea, estatutuko atal garrantzitsuak ezabatuaz. Testua ("kimatua", Alfonso Guerrak esan zuen moduan) 2006an erreferendumean onartu zen.

PPk estatutu haren aurka jo zuen Auzitegi Konstituzionalean, eta honek beste "pasada" bat eman zion 2010ean argitaratu zuen epaian. Bitartean, alderdi haren kideko irrati eta telebistek produktu katalanen boikot lotsagarri bat sustatu zuten, eta PPK berak estatutuaren kontrako sinadurak biltzeari ekin zion. Konstituzionalaren epaiaren ondoren geratu zen estatutu katalan berria tramankulu politiko itxuragabea bihurtu zen.

2012an Mas presidenteak Rajoyri elkarrizketa eskaini zion finantziazioaz jarduteko; horretarako Parlamentu katalanaren gehiengoak babestutako agiri bat aurkeztu zuen. Espainiako Gobernuak eskari hau ez zuen aintzat hartu.

2014an, legezko bidetik, Kataluniako Parlamentuak Espainiako Gorteetan eskatu zuen erreferendumak deitzeko eta egiteko eskumena transferi ziezaiotela. PPren eta PSOEren parlamentariak osatzen duten gehiengo itzelak betiko ezetza eman zion eskariari.

Joan den maiatzaren 22an Puigdemont presidenteak Madrilen azken elkarrizketa saio bat eskaini zuen. Hau ere alferrik.

Urteotan mobilizazio sozial eta politikoa gero eta gehiago indartu da: hor dira erabakitze eskubi-dearen aldeko galdeketak eta independentziaren alde milioika lagun bildu dituzten agerraldiak.

Kataluniak badaki burujabe dela, eta bere etorkizun politikoa erabaki nahi du; kontsulta dezaten nahi du; bozkatu nahi du. Halaxe adierazi du urtetan, eta hala eskatzen du bere Parlamentuko kideen gehiengoak. Baina Espainiako Gobernuaren erantzuna (PPkoa zein PSOEkoa izan) beti ezezkoa izan da, eta gainera ziurtatu du etorkizunean ere jarrera horri eutsiko diola.

Duela egun batzuk, ekainaren 9an, Puigdemont presidenteak, parlamentuko gehiengoaren eta gizarte-erakunde garrantzitsuen babesaz, urriaren 1erako erreferendum bat deitu du. Kontsulta horretan herritarrei honako galdera egingo zaie: "*Nahi al duzu Katalunia errepublika izango den Estatu independente izatea?*".

ELAk herrien askatasuna eta nazioarteko elkartasuna aldeztu du eta, ondorioz, herri katalanak bere estatus politikoaz erabakitze duen eskubidea sostengatzen du, horretarako espainiar Estatuaren oniritzia izan zein ez. Gainera, ELarentzat urrats hau pozgarria da, izan ere, gatazkari aldeko irtenbideren bat emateko saio guztiak agortu direlarik, erakunde katalanek, herritarren aldarria aintzat hartuta, aldebakarreko bidean aurrera egiteko deliberoa hartu baitute, herriak erabaki dezan.

Kongresu konfederal honek:

- Herri katalana herri burujabe gisa aitortzen du
- Urriaren 1eko erreferenduma babesten du, baita politikoki loteslea izatea ere
- Espainiar estatuari exijitzen dio amai dezala erreferendumaren aldeko organizazio eta erakunde kontrako jazarpena, eta utz diezaiela herritarrei modu libre, bakezko eta demokratikoan beren iritzia adierazten
- Euskal alderdi politikoei galdegiten die ez ditzatela sostengatu katalan autodeterminazioaren aurka jo duten eta beren esku dituzten bitarteko guztiekin aurka egiten jarraituko dutela mehatxu egin duten alderdi politiko eta erakundeak
- Eskatzen dio Europar Batasunari berehala aitortzea urriaren 1eko erreferendumean hautestontzietatik ateratzen den den erabakia

Visca Catalunya Lliure! Gora Errepublika katalana!